

PROPORTZIONALTASUNA

1. ARIKETA: Adierazi ondoko magnitude-pareek zein erlazio mota daukaten: Zuzenki proportzionala (Z), Alderantziz proportzionala (A) edo Ez daukate erlaziorik (X).

a) Erositako olio botilen kopurua eta hauen prezioa.			
b) Langile kopurua eta lana bukatzeko behar duten denbora.			
c) Praka batzuen neurria eta prezioa			
d) Pertsona baten altuera eta pisua.			
e) Auto batek egiten duen distantzia eta denbora.			
f) Abiadura eta denbora			
g) Gela baten azalera eta leiho kopurua.			
h) Bonbila batek piztuta egiten duen denbora eta gastatzen duen energia.			
i) Etxalde batean dauden behien kopurua eta hauentzako janariak irauten duen denbora.			
j) Depositua irekitzeko edukiera eta berau betetzeko behar den denbora.			
k) Txorrota baten ur-emia eta depositu bat betetzeko behar den denbora.			

2. ARIKETA: Lotu bakoitza dagokion magnitudearekin.

5 €

2 h

120 Km/h

5 min.

2 langile

7 baloi

10 L/min.

23 L

102 cm

12 Kg

DENBORA

ABIADURA

KOPURUA

PREZIOA

EMARIA

LUZERA

PISUA

EDUKIERA

3. ARIKETA: Ebatzi proportzionaltasun problema hauek (lauki moreak betez):

a) Jostunak 10 botoi josten ditu 15 minututan. Zenbat botoi josiko ditu ordu betean?

DENBORA (min.)

BOTOI KOPURUA

proportzionala:

$$\frac{\boxed{}}{\boxed{}} = \frac{\boxed{}}{x}$$

$$x = \frac{\boxed{} \cdot \boxed{}}{\boxed{}} = \boxed{}$$

ERANTZUNA: BOTOI

b) 4 km/h-ko abiaduran joanda 18 minututan egiten dut etxetik eskolarako bidea. Zenbat denbora beharko nuke 6 km/h-ko abiaduran joanez gero?

ABIADURA (km/h)

DENBORA (min)

proportzionala:

$$\frac{\boxed{}}{\boxed{}} = \frac{\boxed{}}{x}$$

$$x = \frac{\boxed{} \cdot \boxed{}}{\boxed{}} = \boxed{}$$

ERANTZUNA: MINUTU